

Oiartzun

OIARTZUNGO TURISMO LIBURUXKA



Egileak:

Natura taldea

LH5 B



Ikastolen Elkartea

Oiartzun gozatu

Kurukui



Ongi etorri gure herrira!

Welcome!

Aurkezpena

Kaixo, lagunok! Ni Kurukui naiz.

Oso lagun ona naiz, prest nago beti berriei ongi etorria egiteko. Alaia naiz eta oso gutxietan haserretzen naiz. Beti nago irribarretsu eta ez naiz inoiz kexatzen.

Presentación

Oiartzun begirada batean

Kokapena


Oiartzun Euskal Herriko Ipar Ekialdean dago kokatua. Herri mugakideak Errenteria, Irun, Lezo, Lesaka eta Goizueta dira.

Erliebe-elementuak

Oiartzungo erliebe-elementu nagusiena harana da. Horrez gain, mendia, ibaiak eta errekek daude.

Bestelako informazioa

Oiartzunen toki misteriotsuak daude, horietako batzuk Arditurri, Ozentzio, Munanier, Aiako Harria, Mairu-baratza, Urkabe eta Oianleku dira.



ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

Urkabe



Urkabe mendia 234 metrotara dago uraren mailatik. Oiarzungo erdigunean kokatuta dago. Urkaben goi-goian, gurutze handi bat dago, mendi honen ezaugarri nagusia da.

Bertara iristeko bidean zehar hainbat gurutze txikiago aurkitu daitezke. Oso bide erraza da eta mendiaren kaskoan hamaiketako egiteko leku ederra dago.

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

BIANDITZ



Bianditzeko mendilerroaren artean dagoen mendia da. Bianditzen garaiera 840 metrokoa da. Bianditzen berezko izena Harrizko Etxolagaina da. Oiartzungo Ergoien auzoan dago kokatua Bianditz. Aiako Harriaren inguruan dago.

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

OZENTZIOKO ERMITA



Ozentzio Iturriotz auzoan dagoen ermita garrantzitsu bat da. XIX. mendean eraiki zen gerra karlistan eta hor ezkutatzen ziren, babesleku gisa erabili zuten. 1990. urtean berreraiki egin zen.

Gaur egun, Oiartzuna etorritz gero, bertara bisita egitea oso gomendagarria da.

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)


BELOAGAKO GAZTELUA



Beloagako gaztelua Oiartzungo Arkale izeneko mendian kokatuta dago. Esaten dute erromatar batek Serenezko Arrada koak agindua eman zuela Beloaga gaztelua eraikitzeko, eta Gaztelako Afontso erregeak egin zuen.


Harriz eginda dago, ia gaztelu guztiak bezala. Gazteluaren erdi aldean Nafarroako bandera bat dago kokatuta Nafarroako erresumaren leku estrategikoa izan baitzen.

Zirkuituaren mapa



Legenda

Norabidea



Erreferentzia-puntua



Abiapuntua



Interesguneak



Helmuga



Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren lehen urratsa



○ Abiapuntutik lehen interesgunera joateko:

Deskribapena

Lehenengo abiapuntua Oiartzungo plaza izango da. Bertatik, Donibane kalea hartun eta Learreko maldan gora igo. Gero, jarrai ezazu gurutzeek markatzen duten bidea. Gurutze handia aurkitzen duzueanean, lehenengo interesgunera iritsi zarete.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren bigarren urratsa



Lehenengo interesgunetik bigarren interesgunera joateko:

Deskribapena

Hasteko, Urkabe interesgunetik aterako gara, zuzen aterako gara Urkabeko bidetik. Bizardi bidetik joango gara aurrera, eta bide hau eskubitara utziz Beloga gaztelura iristen zara.

Zure zirkuituaren hirugarren urratsa



Bigarren interesgunetik hirugarren interesgunera joateko:

Deskribapena

Ondoren, Beloga gazteluaren atzean utziz, biratu ezkerrera Sorondo bidetik aurrera joan, Oialeku aparkalekua topatu arte. Gero, Oianleku bidetik aurrera joan Bianditz mendia ikusi arte eta iritsi zara bigarren interesgunera.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren laugarren urratsa



- Hirugarren interesgunetik laugarren interesgunera joateko:

Deskribapena

Artikutza bidetik aurrera joan, biratu eskuinera Sarobe erreka bidetik aurrera joan. Ondoren, Oiartzabal bidetik aurrera joan eta Ozentzio baserrian agertuko zara, ondoko ermita da gure hirugarren interesgunera.

Zure zirkuituaren bostgarren urratsa



- Laugarren interesgunetik helmugara joateko (helmuga eta abiapuntua berbera da):

Deskribapena

Amaitzeko, Ozentziotikan abiatu, Ozentzioko kaletik aurrera joan Tronpeoko maldaraino, gero jarraitu aurrera Hautzaro ikastolaraino, Oñatibia kaletik gora joan, Manuel Lekuona liburutegiraino. Gero, joan aurrera Urkabe bidetik ez galtzeko jarraitu harrizko gurutzei. Iritsi zara laugarren interesgunera.

Bisitarientzako gomendioak

Ez egin soinurik animaliak izutu daitezkelako.

Ez bota zaborra ingurunea kutsa daiteke eta.

No cortes los arboles porque nos podemos quedar sin oxígeno.

Trae una cámara de fotos para guardar los recuerdos.

Take your dogs poo, please.

Do not make a lot of noise, please.